

## CARITASEN KANPAINA

2018.eko IRAILAREN 30a

### URTEAN ZEHARREKO XXVI. DOMEKEA (B)

“Zure ahalegina denon atsegina” (II)

## «ZEUGAN DAGO ALDAKETAREN GILTZARRIA»

Liturgia-Lagungarriak

#### Atarikoak:

- ✚ Liturgi lagungarriok liturgiarako taldearen esku itzi.
- ✚ Aldez aurretik prestatu izan doguz, horregaitik kanpaina egiten dan sasoian Jaungoikoaren Herriaren otoitzean aitatzeta komeni dan gertaeraren bat egon daiteke.
- ✚ Ezinbestekoa da liturgi lagungarriak batera doazan materialak irakurtea kanpainaren sena ondo ulertzeko eta homilia egokia egiteko.

#### HASIERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Jesus Jaunaren deialdiari erantzunez batu gara, domekero lez, Eliza osatuz, bere Hitza entzuteko eta Eukaristia ospatzeko.

Jainko Aitak behin eta barriro deitzen gaitu bere presentzian bizi gaitzan, mundua eta historia aukerez betetako leku lez ikusi daiguzan, besteekin batera jardunez eraiki gura dogun giza familiaren handitasunaz jabetu gaitzan. **Gure konpromisoak mundua hobetu egiten dau.**

Horixe da Caritasek esan gura deuskuna goiburu esanguratsu honen bitartez: «Zeugan dago aldaketaren giltzarria». Lagun bakotxaren jardueraz, zeinuez, sentimentuez eta aldaketaz dihardu. Gure aldaketa txiki baten eraginez, dana aldatu daiteke. Aldaketa txikiak, eraldaketa handiak ekarri daitezke.

Eukaristia ospatzera doan alkarte lez, zabaldu daiguzan gure ateak eta bizi daigun txiki eta ahulenen aldeko harreraren poztasuna.

#### SARRERAKO ABESTIA

## CAMPAÑA DE CÁRITAS

30 de SEPTIEMBRE de 2018

### XXVI DOMINGO DEL TIEMPO ORDINARIO (B)

“Tu COMPROMISO mejora el mundo” (II)

## «TU CAMBIO LO CAMBIA TODO»

Subsidios Litúrgicos

#### Notas previas:

- ✚ No olvidéis pasar estos subsidios por las manos del equipo animador de la liturgia.
- ✚ Los materiales se han preparado con antelación. Tened en cuenta que en la fecha de la Campaña puede haber acontecimientos que haya que incluir en la Oración Universal.
- ✚ La lectura de los materiales que acompañan a los subsidios litúrgicos es necesaria para comprender el sentido de la Campaña e iluminar lo que se diga en la Homilía.

#### MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: El Señor Jesús nos ha convocado, como cada domingo, a escuchar su Palabra y celebrar la Eucaristía, reunidos como Iglesia.

Dios Padre nos sigue invitando, una y otra vez, para que vivamos en su presencia, para que veamos el mundo y la historia como un lugar de posibilidades, para que trabajando codo a codo con los demás descubramos la grandeza de la familia humana que tenemos que construir. **Nuestro compromiso mejora el mundo.**

Es lo que Cáritas nos presenta en este domingo con un lema sugerente: «Tu cambio, lo cambia todo». Nos habla de las acciones, los gestos, los sentimientos y la transformación individual de cada persona. Y un pequeño cambio nuestro puede hacer que todo cambie. Pequeños cambios pueden producir grandes transformaciones.

Como comunidad que se dispone a celebrar la Eucaristía, abramos nuestras puertas y vivamos el gozo de la acogida a los pequeños y a los más desfavorecidos

#### CANTO DE ENTRADA





## ABADEAREN AGURRA

Jainkoa eta lagun hurkoa maitatu daiguzan gure bihotzak gidatzen dituan Jauna, zuekin.

## DAMU OTOITZA

Ospakizunaren hasieran, eskatu deiogun Jainkoari gure bihotz-barritzea. **(Isilunea)**

- Berbiztean gauza guztiak barriztatu dozuzana:  
*Erruki, Jauna.*
- Mundua aldatzera deitzen gaituzuna:  
*Kristo, erruki.*
- Gure babesle eta jagole zarana:  
*Erruki, Jauna.*

## OHARRA 1. IRAKURGAIARI (Zen 11,25-29)

Moises Israel herria gidatzeko saiakeran arida, esperientzia eta heldutasuna daben, eta euren adinagaitik nagusi deitzen jaken, 70 personen laguntzagaz. Euroi dagokie, euroi bakarrik ez bada be, iragarpen-misinoa. Kontaketan behin eta barrero esaten danez, Jainkoak gura dauanari emongo deusaz bere doeak, ez du ez ezer ez inork behartzen.

## OHARRA 2. IRAKURGAIARI (St 5,1-6)

Santiagoren gutuna ohartarazpena da bizitza bakarrik eukitea eta metatzea dala uste dabenentzat; ohartarazpena, batez be ongizatea bidegabekeriatik, iruzurretik edo segurtasunetik bertatik sortzen bada eta besteen beharrezanez arretarik eskaintzen ez bajake. Orain entzungo dogun irakurgaiak gogor egiten deuto aurka bidegabeko aberastasunari.

## OHARRA EBANJELIOARI (Mk 9, 38-43. 45. 47-48)

Jesus alkartea egitera, banaketa guztiak gaitzera etorri da eta, horregaitik, “geurea” onena dala eta “besteenak” ez dauala balio esatea ez da bidezkoa, horixe da-eta batere lagungarriak ez diran aldeak sortzeko biderik onena. Inori ez dagokio eskusiban gizabanakoen eta gizartearen onaren alde jarduteko gaitasuna. Hobe genduke batasuna eta osagarritasuna bilatuko bagendu.

## SALUDO DEL PRESIDENTE

El Señor, que dirige nuestros corazones para que amemos a Dios y al prójimo, esté con todos vosotros.

## ACTO PENITENCIAL

Al comenzar esta celebración, pidamos a Dios que nos conceda la conversión de nuestros corazones. **(Instantes de silencio)**

- Tú que al resucitar has renovado todas las cosas:  
*Señor, ten piedad.*
- Tú, que nos llamas a transformar el mundo:  
*Cristo, ten piedad.*
- Tú, que eres nuestro protector y defensor:  
*Señor, ten piedad.*

## MONICIÓN a la 1ª LECTURA (Nm 11,25-29)

Moisés trata de guiar al pueblo de Israel, con la ayuda de 70 personas probadas en experiencia y madurez, llamados los ancianos por su sabiduría. Estos tienen también la misión de profetizar, pero no en exclusiva. El relato nos insiste en que Dios puede dar sus dones a quien quiera, que no está obligado a nada ni a nadie.

## MONICIÓN a la 2ª LECTURA (St 5,1-6)

La carta de Santiago es una llamada de atención para cuantos piensan que la vida es solo tener y acaparar; una llamada de atención, sobre todo, si el bienestar nace de la injusticia, del fraude o de la propia seguridad, sin atender a las necesidades de los demás. La riqueza injusta es atacada con fuerza en este texto que escuchamos ahora.

## MONICIÓN al EVANGELIO (Mc 9, 38-43.45.47-48)

Jesús ha venido a hacer comunidad, a superar cualquier división, y por eso no tiene cabida esa actitud de creer que lo “nuestro” es lo mejor, o que lo de los “otros” no sirve. Ese es el mejor modo de crear diferencias que a nadie ayudan. Nadie tiene en exclusiva la capacidad de trabajar por el bien de las personas y de la sociedad. Haríamos bien en buscar la unidad y la complementariedad.



## JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Zabaldu deiegun gure bihotza gizon eta emakume guztien beharrezanezi eta aurkeztu deiegun konfiantzaz betetako otoitz hau behartsu eta baztertuarengandik gertu dagoan Aitari.

- Pastoral ekiturte barria hasten ari dan Bizkaiko Eleizearen alde; besteakaz, entzutea eta arrettea behar dabenakaz, Jainkoaren kutunenakaz bat egitera abiatu dan Eleiza izan daiten.

*Eskatu deiegun Jaunari.*

- Caritasen alde eta bertako boluntario eta beharginen alde; erakutsi deiguelá behartsuakaz bat egiteak gure ikuspuntua aldatu egiten dauala eta jarrera eta ekintza berrak eta konpromiso eraldatzaileak sortzen dituala gudan.

*Eskatu deiegun Jaunari.*

- Agintarien alde; guztion ongizatearen alde jardun daien gizaki guztien bizimodu duina eta ahulenen eskubideak ahalbideratuz eta defendatuz.

*Eskatu deiegun Jaunari.*

- Jesusen Hitza entzun dogunon alde; bere irakaspena kontuan hartuta, danen zerbitzari izaten, maitasunak eraginda jarduten daben lankide izaten eta txiki eta ahulenei harrera eginez Berari harrera egiten ikasi daigun.

*Eskatu deiegun Jaunari.*

Jainko Aita, emon deuskuzun legea zeure eta hurkoaren aldeko maitasunean gauzatzen da; emon indarra maitasun hori geure bizitzetan garatu daigun.

***Jesukristo gure Jaunaren bitartez.***

## OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Gure garaiko kristau lez, ezinbestekoa dogu errealidadea ezagutu eta horren arduradun egitea; behartsu eta ahulenen errealidadeaz arduratu behar dogu bihotz errukitsuz eta gizon eta emakumeen bizitzaren erantzule egin behar dogu, eurakaz batera senidetasunezko bide aeginez.

Gaur batu daiten dirua Elizbarrutiko Caritasentzat izango da.

Eskerrik asko kolekta honetan laguntzeagaitik.

## ORACIÓN UNIVERSAL

Abramos nuestro corazón a las necesidades de todas las personas y presentemos nuestra oración confiada al Padre que está cerca de quien es pobre y siente la exclusión.

- Por nuestra Iglesia de Bizkaia que comienza el nuevo curso pastoral, para que, sea Iglesia en salida al encuentro de los demás, al encuentro de quien necesita escucha y atención, los preferidos de Dios.

*Roguemos al Señor.*

- Por Cáritas, por quienes trabajan y colaboran con ella, para que nunca dejen de interpelarnos, y así, descubramos que el encuentro con el pobre cambia nuestra manera de ver la realidad y promueve en nosotros actitudes y acciones nuevas y compromisos transformadores.

*Roguemos al Señor.*

- Por quienes tienen la misión de gobernar, para que trabajen por el bien común facilitando y defendiendo la vida con dignidad de todos los seres humanos y los derechos de los más frágiles.

*Roguemos al Señor.*

- Por nosotros que hemos escuchado las palabras de Jesús, para que, siguiendo su enseñanza, aprendamos a ser servidores de todos, a colaborar con quienes actúan movidos por el amor y a acogerlo a Él acogiendo a los más pequeños e indefensos.

*Roguemos al Señor.*

Dios Padre, la ley que nos has dado se realiza en el amor a ti y al prójimo, danos fuerza para realizar este amor en nuestras vidas.

***Por Jesucristo, nuestro Señor.***

## MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO

Como cristianos y cristianas de nuestro tiempo, hoy tenemos el deber y la responsabilidad de conocer la realidad y hacernos cargo de ella; la tarea de cargar con la realidad de los más pobres y vulnerables con un corazón compasivo y misericordioso; y el compromiso de encargarnos de la vida de las personas tejiendo camino fraterno con ellas.

La colecta de hoy será destinada a Cáritas Diocesana.

Muchas gracias por vuestra generosidad.



## JAUNARTZE OSTERAKO ISILTASUNERAKO

Makina bat anai-arreba laguntzaren zain dago; makina bat zapalduak zuzentasuna behar dau; langabetu asko dago lan bila; herri askok falta dau errespetua: Zelan leiteke, gure sasoiak, jentea gosez hiltea, analfabetoak egotea, oinarritzko laguntza medikurik be jasoten ez daben personak egotea, aterpe bakoak izatea?

Pobretasunaren eremua mugagabe zabaldu daiteke, zaharrei pobretasun barriak gehitzen badeutseguz... Pobretasun barri honeek, sarritan, baliabide ekonomikoak daukiezan inguru edo gizataldeetan eragiten dabe: zentzugabeke-riaz etsita dagozanak, drogaren maltzurkerian jausi diranak, abandonatutako edadetuak, gaixotutako nagusiak, baztertuak...

Planetako eremu zabalak bizitzeko desegoki eta gizakiaren etsai bihurtzen dituan desoreka ekologikoa gertatu daitekeela-eta, albo batean geratu ete gaitikez? Edo hondamendia baino ez dakarren gerren amesgaiztoak behin eta berrori mehatxatzen dauan bakearen alde egin barik geratu ete gaitikez? Eta hainbeste personaren, eta batez be umeren, oinarritzko giza eskubideen urraketaurren ezer egin barik geratu ete gaitikez?<sup>1</sup>

Benetan, ez ikusteko gauza gara? "Ezin dau inork Jainkoaren erreinua ikusi, berrori jaioten ez bada"<sup>2</sup>.

**Zoaze Jaunaren bakean!**

<sup>1</sup> Eleizaren Doktrina Sozialaren (EDS) laburpena, 5.

<sup>2</sup> Jn 3,3.

## PARA EL SILENCIO DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

Existen muchos hermanos necesitados que esperan ayuda, muchos oprimidos que esperan justicia, muchos desocupados que esperan trabajo, muchos pueblos que esperan respeto: ¿Cómo es posible que, en nuestro tiempo, haya todavía quien se muere de hambre; quien está condenado al analfabetismo; quien carece de asistencia médica más elemental; quien no tiene techo para cobijarse?

El panorama de la pobreza puede extenderse indefinidamente, si a las antiguas añadimos las nuevas pobreza, que afectan a menudo a ambientes y grupos no carentes de recursos económicos, pero expuestos a la desesperación del sin sentido, a la insidia de la droga, al abandono en la edad avanzada o en la enfermedad, a la marginación o a la discriminación social...

¿Podemos quedar al margen ante las perspectivas de un desequilibrio ecológico, que hace inhabitables y enemigas del hombre las vastas áreas del planeta? ¿O ante los problemas de la paz, amenazada a menudo con la pesadilla de guerras catastróficas? ¿O frente al vilipendio de los derechos humanos fundamentales de tantas personas, especialmente de los niños?<sup>1</sup>

De verdad, ¿somos capaces de no ver? "Si uno no nace de nuevo, no puede ver el reino de Dios"<sup>2</sup>.

**¡Podéis ir en paz!**

<sup>1</sup> Compendio de la Doctrina Social de la Iglesia (CDSI), 5.

<sup>2</sup> Jn 3,3.

